BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

203

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 17koa, Industriako sailburuordearena. Honen bidez jakinarazten da, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzak 2014ko ekitaldian jasoko dituzten erakunde onuradunen zerrenda; aipatutako agindu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela-eta, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren babesean emandako laguntzen onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin zaienez, ebazpen honen bidez onuradunen zerrenda argitaratuko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Aipatutako aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Xedea.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduan ezarritako laguntzei dagokienez, 2014ko ekitaldian onuradun izan diren erakundeen zerrenda argitaratzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kluster nagusietan sartuta dauden enpresen elkarteei diru-laguntzak emateko modua arautzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 17a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

ERANSKINA

Entitate onuraduna	Diru-kopurua
«ACEDE» Euskadiko Etxetresna Elektrikoen Kluster Elkartea, A.I.E.	98.472
«ACICAE» Euskadiko Automobilgintzaren Kluster Elkartea	188.725
«ACLIMA» Euskadiko Ingurumen Industrien Kluster Elkartea	166.282
«AFM» Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Tresna Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea	189.017
«EIKEN» Euskadiko Ikus-entzunezkoen Kluster Elkartea	93.480
Energiaren Kluster Elkartea	205.206
Euskal Itsas Industria Sustatzeko Elkartea (Euskal Herriko Itsas Foroa)	210.472
«GAIA» Euskadiko Teknologia Elektronikoen eta Informazioaren Industrien Elkartea	187.609
«HEGAN» Euskadiko Aeronautika eta Espazioaren Kluster Elkartea	189.097
Euskadiko Paperaren Kluster Elkartea	90.180
Uniport Bilbao Elkartea / Portuko Komunitatea	181.460
Guztira	1.800.000